



[MENUA](#)

Idatzi bilaketa hitza(k)

Bilatu

[HERNANI GOIZUETA ARANO EREÑOTZU ASTIGARRAGA](#)
[Multimedia](#)
[Publizitatea](#)
[Bazkide](#)
[KOMUNITATE](#)

[Hemeroteka](#)
[egin](#)

albiste//SAGARDOETXEA UDABERRI GIROAN

Antzerki, musika eta tailerrak, sagarrondoan loraldiarekin bat

Maiatzaren 5ean Udaberri Giroan festa egingo da Sagardoetxean. Antzerkia, kontzertuak eta tailerrak egingo dira, doan.

ASTIGARRAGA

2018/04/28 00:00 Larunbata

Sagarrondoak hasi dira lo-ratzen, udaberriarekin batera, eta Sagardoetxean hainbat ekitaldi kultural egingo dira.

Maiatzaren 5ean, arratsalde, Udaberri Giroan festa egingo da, familiei zuzenduta.

Ternuara, Sagardoetxeatik

Festa arratsaldeko 17:00etan hasiko da, antzerki, musika eta dantza emanaldiarekin. Astigarragako Antzerki Eskola, Astigar dantza taldea eta Norberto Almandoz Musika Eskolako ikasleek Ternuarako bidaiaria antzeztuko dute, baserritar eta marinelen arteko istorioa oinarri; izan ere, sagardoak garrantzia handia izan zuen baleazaleen itsas bidaietan.

Ondoren, 18:00etan hasita kontzertuak emango dituzte Musika Eskolako Kazkakabarra eta Zazpi t'erdik taldeek, eta era berean loreekin egindako bitxigintza tailerra emango dute Julia Telletxeak eta Mari Jose Lizeagak, familientzako.

Bukatzeko, norberak ekarritakoarekin piknika egiteko gomendioa egin dute.

 Atsegin dut 0
  Tweet
  Whatsapp
  Emaila
  Inprimitu



 PDF

HERNANI *Apirilak 30*

ESKELAK

Agenda Bateratua

HERNANI

19:00
Kontzertua
 Goiz Eguzki

IRUZKINAK